

Gripeareen kontra txertatzeko 2019–2020 kanpaina - Hezkuntza Departamentua

Txertatzeko kanpaina urriaren 14an hasi da eta **2019ko azaroaren 29an bukatuko da.**

Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzutik txertoa jartzeko animatu nahi zaituztegu langileok, eta oroitarazten dizuegu **haurdunaldian** eta haurdun egonik noiznahi jarri daitekeela **zehazturik dagoela**.

1.- Hezkuntza Departamentuko irakasleak eta irakasle ez direnak, bai egoitzan daudenak, bai ikastetxeetakoak **Laneko Arriskuen Prebentziorako Atalera** txertoa jartzera joan daitezke, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko sotoan baitago: Landabengo industrialdea, E/F kaleak, Iruña. **Ez da alde zuzeneko hitzordurik behar. Hemen dituzue ordutegiak:**

- **Astelehenetik ostegunera 11:30etatik 14:30etara.**
- **Ostiraletan, 8:00etatik 14.30etara.**

2.- Ikastetxeetako irakasleendako, Osasun eta Hezkuntza Departamentuen artean gripeareen kontra txertatzeko kanpainarako dagoen lankidetzaren ondorioz, aukera hauek daude:

1. **Osasun laguntza publikoa aukeratu duten irakasleak:** norberaren osasun etxean jarri ahalko diote txertoa edo norberaren ikastetxetik hurbilen dagoen osasun etxean, dohainik.

2. **Osasun laguntza pribatua aukeratu duten irakasleak:** Hiru aukera dituzte:

- IMQra joan daitezke (Igualatorio Médico Quirúrgico; San Miguel klinikak, Iruñekoa eta Tuterakoa, helbide hauetan, hurrenez hurren: Belosoko aldapa, 32 zk. eta Capuchinos pasealekua, 25 zk., Merindades etorbidearen kantoian). Gripeareen kontrako txertoa dohainik da.

- Hezkuntza Departamentuko Laneko Arriskuen Prebentziorako Atala, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuan, sotoan: Landabengo industrialdea, E/F kaleak, Iruña. Gripeareen kontrako txertoa dohainik da.

- “Iguualatorio Médico Quirúrgico – Atenzio Primaria Rurala” aseguraketarekin, aurreko aukeretaz gain:

- Aldez aurreko konbenioaren arabera norberari egokitutako Osasun Etxera joan.
- Ikastetxetik gertuen dagoen Osasun Etxera joan, aldez aurretik 36,27 euro ordaindu behar dira “erizain balorazio eta txertoaren administrazioarengatik”.

- Aurreko atalean sartzen ez diren irakasleak, aurreko bi aukeretaz gain:

- Ikastetxetik gertuen dagoen Osasun Etxera joan, aldez aurretik 36,27 euro ordaindu behar dira “erizain balorazio eta txertoaren administrazioarengatik”.

Ordaindu beharreko zenbatekoa, 1564/2018 EBAZPENA, ekainaren 5koa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emana, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren prestazioen tarifak ezartzen dituena.

OHARRA:

Txertoen egutegia eguneratua izateko, garrantzitsua da Laneko Arriskuen Prebentziorako Atalean txertatzen **EZ** den langileak horren berri eman dezala, posta elektronikoz edo telefonoz, datu hori erregistro informatikoan idazteko:

Helbide elektronikoa: seccion.prevencion.educación@navarra.es

Telefonoak: 848 428533.
848 428534.
848 423731.

Era berean, gomendagarria da **ikastetxeetako zuzendaritza taldeak hurbilean dituzten Osasun Etxekin harremanetan jartzea irakasleak zein egun eta zein orduan gripearen aurkako txertoa jartzera joan ahalko diren zehazteko.**